



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Kontuen Epaitegia Batzar Nagusien aurrera etorriko da, 2010. eta 2011. urtekitaldietako Bizkaiko Kontu Orokorraren Fiskalizazio Txostenak aurkezteko

Bilbon, 2014ko azaroaren 14an.

Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak, aho batez, eta EAJ-PNV-k proponiduta, Kontu Publikoen Euskal Epaitegiko arduradun baten agerraldia eskatzea onartu dau, Batzar Nagusien aurrean argitu daizan Bizkaiko Lurralde Historikoko 2010. eta 2011. urtekitaldietako Kontu Orokorraren Fiskalizazio Txostenak. Txosten horreek kontabilitate eta lege arloetako gaiak jasoten ditue, kudeaketea hobetzeko aholkuak emoten ditue eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eta bere erakunde publikoen finantza egoera aztertzen dabe.

TRIBUTUEN KARGAK BALIOBAKOTZEA, ORDAINEAN EMOTEA ERRAZTEKO

Saio berean, Bizkaiko Talde Popularrak (PP) aurkeztutako Foru Arau Proposamena bozkatu da, kargak baliobakotzeari buruzkoa, exekuzino hipotekarioen ordezkotzarako neurri moduan ordainean emotea errazteko. Artikuluz-artikulu kontrako boto barik onartu dan testua osoko batzarrak berretsi beharko dau.

Zioen azalpenak adierazoten dauenez, arau horrek, “zehaztu egin gura dau Bizkaiko Foru Aldundiak zelan jardun behar dauen ordainetan emongo dan etxebizitzak hipotekaz geroztiko kargak baditu, karga horreek Aldundiak titularitatean dituan zerga-zorretatik eratorritakoak diranean”, eta onuradunek bete behar dituen eskakizunak ezarten ditu. Arauak ezarten dauenez, Aldundiak bere aldeko kargak baliobakotu egingo ditu, “Ohiko etxebizitzaren gaineko hipotekazorren berrantolaketa bideragarriko Ohitura Onen Kodea” izenekoa jasoten dauen eranskinaren 3. atalak aitutzen dituan balizkoetan.

Arau proiektuak zazpi zuzenketa-eske jaso ditu, EH Bilduren sei eta PSE-EE taldearen beste bat. Azkenik, osoko bilkurara eroango dan errespenak aldaketa bat jasoko dau. Aho batez onartu dan EH Bilduren zuzenketa-eske baten –seigarrena– eta PSE-EE taldeak aurkeztu dauen bakarraren –aurrekoaren oso antzekoa izan da– bitartez, baliabide gitxi daukiezan onuradunei aukerea emongo jake, kargak baliobakotzeko gastuei aurre egiteko ezintasunak ez daian ordainean emotea ezinezko bilakatu. Horretarako, gastu horreek Foru Aldundiak aurreratzea aurreikusten da, gerora begira zenbateko hori, Ogasunaren aurrean aurkeztu beharreko ordainketa planean sartuz.

EH Bilduk osoko batzarrean egin beharreko eztabaidarako gorde ditu onartu ez diran bere 5 zuzenketa-eskeak. Beste gauza batzuen artean, koalizino abertzaleak, onuradun, ohitura onen kode hori beteten dabenak bakarrik ez izatea gura dau. Etxetik kanporatzeen kontrako taldeek egindako eskari zabalari bidea emonez, “jagokan finantza erakundeak onartutako ordainean emoteko kasuak” be onartzea proponiduten dau, holan egiten ez bada “oso gitxi izango diralako araua bete ahal izango daben pertsonak edo bizikidetzak unidadeak”, Joseba Gezuragak adierazo dauenez.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

El Tribunal de Cuentas comparecerá en Juntas para presentar los Informes de Fiscalización de la Cuenta General de Bizkaia de los ejercicios 2010 y 2011

Bilbao, a 14 de noviembre de 2014.

La Comisión de Economía y Hacienda ha aprobado hoy, por unanimidad, a propuesta del PNV, solicitar la presencia de un responsable del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas para que detalle en Juntas los Informes de Fiscalización de las Cuentas Generales del Territorio Histórico de Bizkaia de los ejercicios 2010 y 2011. Estos informes abarcan aspectos contables y de legalidad, recomendaciones para la mejora de la gestión y un análisis de la situación financiera de la Diputación foral de Bizkaia y de sus entes públicos.

CANCELACIÓN DE CARGAS TRIBUTARIAS PARA FACILITAR LA DACIÓN EN PAGO

En la misma sesión, se ha sometido a votación el proyecto de Norma Foral presentado por el grupo Popular Vizcaíno (PP) sobre la cancelación de cargas para facilitar la dación en pago como medida sustitutiva de la ejecución hipotecaria. El texto, aprobado artículo por artículo sin ningún voto en contra, deberá ratificarse ahora por el pleno.

Según la exposición de motivos, esta norma “determina la actuación de la Diputación Foral de Bizkaia en los casos en que la vivienda habitual que va a ser objeto de dación en pago se encuentre gravada con cargas posteriores a la hipoteca procedentes de deudas tributarias cuya titularidad corresponda a dicha Diputación Foral”, y fija los requisitos que deben reunir los beneficiarios. La norma establece que la Diputación procederá a la cancelación de las cargas a su favor en los supuestos a que se refiere el apartado 3 del anexo que recoge el "Código de buenas prácticas para la reestructuración viable de las deudas con garantía hipotecaria sobre la vivienda habitual" contenido en el Real Decreto-Ley 6/2012, de 9 de Marzo.

El proyecto de norma ha recibido siete enmiendas, seis de EH Bildu y una del PSE-EE. Finalmente, el dictamen que se elevará a pleno, incorporará una modificación. A través de una enmienda de EH Bildu -la sexta- y otra similar y única del PSE-EE, aprobadas por unanimidad, se facilitará a los beneficiarios con escasos recursos que la imposibilidad de hacer frente a los gastos de la cancelación de las cargas no les impida la dación en pago. Para ello se prevé el adelanto de dichos gastos por parte de la Diputación foral, incorporándose este importe posteriormente en el plan de pagos a presentar ante Hacienda.

EH Bildu ha reservado sus 5 enmiendas rechazadas para su debate en pleno. Entre otras cosas, la coalición abertzale quiere que los beneficiarios no sean sólo los que cumplen con ese código de buenas prácticas. Atendiendo a una petición directa de los colectivos antidesahucios reclaman que se incluyan "aquellos casos de dación en pago aceptados por la entidad financiera correspondiente", ya que de no hacerse así serán "muy pocas las personas, o unidades convivenciales, que podrán acogerse" a la norma, según Joseba Gezuraga.